

Nekazaritzako turismo ostatuko zerbitzuak horrelako ziurtagirik eskuratu gabe egiten dituztenek ezingo dute kalkulatu jarduera horren etekin garbia artikulua honetan aurreikusitako erregela bereziak aplikatuta.

3. Orobat, 1. apartatuko erregela bereziak aplikagarriak izango zaizkie produktu naturalak, landareenak zein animalienak, eraldatu, prestatu edo manufakturatzeke jardueri, baldin eta Jarduera Ekonomikoen Zergaren Tarifetan industria jardueri dagokien epigrafe batean alta eman beharra eskatzen badute eta produktu natural horiek lortzen diren ustialekuen titularrek eginak badira.

32. artikulua. *Baso-jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko erregela bereziak.*

1. Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoa garatzearen, baso-jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan kalkulatzeko, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

a) Sarrerak kalifikatu eta kuantifikatu behar dira zergaren foru arauan ezarritako erregela orokorrak aplikatuta, betiere jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabaziak eta galerak kanpoan utzita.

b) Gastu kengarriak, frogatzen eta baloratzen zailak direnez, konputatu behar dira aurreko a) letran aipatutako sarreren 100eko 65eko portzentajea aplikatuta.

Ustiatutako azalerak zergadunak hostozabal autoktonoen espeziekin basoberritzen dituzenean, aurreko paragrafoan adierazitako gastu kengarrien portzentajea aurreko a) letran aipatu diren sarreren 100eko 75 izango da.

Basoberritzea 2. apartatuan ezarritako baldintza eta epeetan egin behar da.

Baztertuta dago beste edozein gastu kengarritzat hartzea.

c) Aurreko letran aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu behar da.

Bidezkoa den kasuetan, diferentzia horri zergaren foru arauan bi edo bost urtetik gorako sorreraldia duten eta aldizka edo noizean behin lortu ez diren jarduera ekonomikoen etekin garbietarako ezarritako tratamendua emango zaio.

d) Azkenik, gehitu edo kendu behar dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, kasuan kasukoa, zergaren foru arauak 25.3 artikuluan ezarritakoari jarraituta, eta emaitza jardueraren etekin garbia izango da.

2. Mozketarako baimena ematen denetik hasi eta bi urteko epean basoberritu behar dira ustiatutako azalerak. Basoberritzea justifikatzeko, bidezko ziurtagiria aurkeztuko da, Gipuzkoako Foru Aldundian gaia dela-eta eskudun den departamentuak egina.

Gertatzen bada basoberritzea ez dela egiten ustiatutako azaleraren mozketak egiten den urte berean, aurreko paragrafoan xedatutako eran, zergadunak mozketak egiten den ekitaldiko autoliquidazioan adierazi behar du basoberritzea ezarrita dauden baldintzetan eta epeetan egiteko asmoa duela.

3. Ustiatutako azalerak basoberritzeko aurreko apartatuan ezarritako baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du zergaduna behartuta geratzea autoliquidazio osagarri bat aurkeztera 1.b) apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako gastu kengarriaren portzentajea aplikatu den zergaldiari dagokionez.

Aquellos que no obtengan dicha certificación y presten los servicios de alojamiento turístico agrícola, no podrán determinar el rendimiento neto de esta actividad aplicando las reglas especiales previstas en este artículo.

3. Asimismo, serán de aplicación las reglas especiales previstas en el apartado 1 a las actividades de transformación, elaboración o manufactura de productos naturales, vegetales o animales, que requieran el alta en un epígrafe correspondiente a actividades industriales en las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas y se realicen por los titulares de las explotaciones de las cuales se obtengan directamente dichos productos naturales.

Artículo 32. *Reglas especiales para la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa aplicables a la actividad forestal.*

1. En desarrollo de lo dispuesto en el apartado 2 de la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral del Impuesto, la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa para la actividad forestal se llevará a cabo con arreglo a las reglas especiales que se relacionan a continuación:

a) Se calificarán y cuantificarán los ingresos, a excepción de las ganancias y pérdidas derivadas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, aplicando las reglas establecidas con carácter general en la Norma Foral del Impuesto.

b) Los gastos deducibles, en atención a su difícil justificación y valoración, se computarán mediante la aplicación del porcentaje del 65 por 100 respecto de los ingresos mencionados en la letra a) anterior.

Cuando el contribuyente proceda a la repoblación de las superficies explotadas con especies frondosas autóctonas, el porcentaje de gastos deducibles previsto en el párrafo anterior consistirá en el porcentaje del 75 por 100 respecto de los ingresos mencionados en la letra a) anterior.

La repoblación deberá efectuarse en las condiciones y plazos previstos en el apartado 2.

Se excluye la deducibilidad de cualquier otro gasto.

c) Se calculará la diferencia entre los ingresos y los gastos mencionados en las letras anteriores.

Cuando proceda, dicha diferencia recibirá el tratamiento previsto en la Norma Foral del Impuesto para los rendimientos netos de la actividad económica cuyo período de generación sea superior a dos o a cinco años, y no se obtengan de forma periódica o recurrente.

d) Finalmente, se sumarán o restarán, según proceda, las ganancias y pérdidas derivadas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25.3 de la Norma Foral del Impuesto, resultando el rendimiento neto de la actividad.

2. La repoblación de las superficies explotadas se deberá efectuar en el plazo de dos años desde la concesión del permiso de corta, y se justificará mediante la presentación del certificado correspondiente emitido por el departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente por razón de la materia.

Cuando, conforme a lo dispuesto en el párrafo anterior, la repoblación no se realice el mismo año en que se efectúe la corta de la superficie explotada, el contribuyente vendrá obligado a hacer constar en la autoliquidación que presente por el Impuesto del ejercicio en el que se realice la mencionada corta, su intención de efectuar la repoblación en las condiciones y plazos señalados.

3. El incumplimiento de las condiciones establecidas en el apartado anterior para efectuar la repoblación de las superficies explotadas determinará la obligación del contribuyente de practicar una autoliquidación complementaria correspondiente al período impositivo en el que se aplicó el porcentaje de gastos deducibles previsto en el segundo párrafo del apartado 1.b).

Ondorio horietarako, zergadunak berriro kalkulatu behar du aurreko paragrafoan aipatu den urtean baso-jarduerak eman duen etekin garbia, eta horretarako, 1.b) apartatuko lehen paragrafoan ezarritako gastu kengarriaren portzentajea aplikatu behar du. Ateratzen den kuotarekin batera, berandutza interesak ere ordaindu beharko ditu.

Autolikidazio osagarria aurkezteko epea baldintzak bete ez diren egunean hasi eta ez-betetzea gertatu den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epearen azken egunean amaituko da.

33. artikulua. *Baxurako arrantza jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko erregela bereziak.*

Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoa garatzearen, baxurako arrantza jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan kalkulatzeko, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

a) Sarrerak kalifikatu eta kuantifikatu behar dira zergaren foru arauan ezarritako erregela orokorrak aplikatuta, betiere jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabaziak eta galerak kanpoan utzita.

b) Gastu kengarriak, frogatzen eta baloratzen zailak direnez, konputatu behar dira aurreko a) letran aipatutako sarreren 100eko 90eko portzentajea aplikatuta.

Baztertuta dago beste edozein gastu kengarritzat hartzea.

c) Aurreko letretan aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu behar da.

d) Azkenik, gehitu edo kendu behar dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, kasuan kasukoa, zergaren foru arauak 25.3 artikuluan ezarritakoari jarraituta, eta emaitza jardueraren etekin garbia izango da.

III. KAPITULUA. KAPITALAREN ETEKINAK

1. SEKZIOA. Kapital higiezinaren etekinak

34. artikulua. *Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekintzat hartzea.*

Zerga honen ondorioetarako, etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinen artean sartu behar dira -zergaren foru arauaren 32.1 artikuluan aipatzen dira etekin horiek- etxebizitzaren edo haien gaineko gozamen-eskubide errealeen titularrek lortzen dituzten etekinak, baldin eta titular horiek etxebizitza hutsen errentamendua sustatzen eta bultzatzen duten Eusko Jaurilaritzaren dekretuetan xedatutakoari atxikita badaude.

Era berean, zergaren foru arauaren 32.1 artikuluan aipatzen diren etekinen artean sartu behar dira sozietateei etxebizitzak lagatzeagatik edo alokatzeagatik eskuratzen diren etekinak, betiere baldin eta sozietate horiek, sozietateen gaineko zergaren foru arauko 115. artikuluan ezarritakoaren indarrez, higiezinaren errentamenduko jarduera kualifikatua egiten duten entitateentzat ezarrita dagoen araubide berezia aplikatzen bazaie. Horretarako, baina, ezinbesteko baldintza da entitate horiek etxebizitzaren errentamendua eragiketarako jasotzea sozietateetik. Ondorio horietarako, etxebizitza-errentamendutzat bakar-bakarrik hartuko da Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan definitutakoa.

A estos efectos, el contribuyente deberá proceder a recalcular el rendimiento neto de la actividad forestal correspondiente al año a que se refiere el párrafo anterior mediante la aplicación del porcentaje de gastos deducibles previsto en el primer párrafo del apartado 1.b) y resultará obligado a ingresar la cuota resultante, con los intereses de demora correspondientes.

Esta autoliquidación complementaria deberá presentarse en el plazo que medie entre la fecha en que se produzca el incumplimiento y la finalización del plazo reglamentario de autoliquidación correspondiente al período impositivo en que se produzca dicho incumplimiento.

Artículo 33. *Reglas especiales para la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa aplicables a la actividad de pesca de bajura.*

En desarrollo de lo dispuesto en el apartado 2 de la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral del Impuesto, la determinación del rendimiento neto mediante la modalidad simplificada del método de estimación directa para la actividad de pesca de bajura se llevará a cabo con arreglo a las reglas especiales que se relacionan a continuación:

a) Se calificarán y cuantificarán los ingresos, a excepción de las ganancias y pérdidas derivadas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, aplicando las reglas establecidas con carácter general en la Norma Foral del Impuesto.

b) Los gastos deducibles, en atención a su difícil justificación y valoración, se computarán mediante la aplicación del porcentaje del 90 por 100 respecto de los ingresos mencionados en la letra a) anterior.

Se excluye la deducibilidad de cualquier otro gasto.

c) Se calculará la diferencia entre los ingresos y los gastos mencionados en las letras anteriores.

d) Finalmente, se sumarán o restarán, según proceda, las ganancias y pérdidas derivadas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25.3 de la Norma Foral del Impuesto, resultando el rendimiento neto de la actividad.

CAPÍTULO III. RENDIMIENTOS DEL CAPITAL

SECCIÓN 1.ª Rendimientos del capital inmobiliario

Artículo 34. *Consideración de rendimiento del capital inmobiliario procedente de viviendas.*

A efectos de este Impuesto se incluyen entre los rendimientos del capital inmobiliario procedentes de viviendas a que se refiere el artículo 32.1 de la Norma Foral del Impuesto, los rendimientos obtenidos por los titulares de las viviendas o de los derechos reales de usufructo que recaigan sobre las mismas, que se acojan a lo dispuesto en los Decretos del Gobierno Vasco por los que se promueve e impulsa la puesta en el mercado del arrendamiento de viviendas vacías.

Asimismo, se incluirán entre los rendimientos a que se refiere el artículo 32.1 de la Norma Foral del Impuesto, los rendimientos derivados de la cesión o alquiler de viviendas a sociedades que se beneficien del régimen especial de Entidades con actividad cualificada de arrendamiento de inmuebles en virtud de lo previsto en el artículo 115 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, en la medida en que éstas hayan sido objeto de operaciones de arrendamiento de vivienda por parte de la sociedad. A estos efectos, únicamente se entenderá por arrendamiento de vivienda el definido en el artículo 2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.